

IKUSKAPENENKO LAGUNTZAILEA

“B”

AZTERKETA PRAKTIKOA

B ARIKETA

1. KASUA

1. GALDERA.-

GALDAKAOREN ETA MADRILEN ARTEKO SALGAIEN GARRAIO PUBLIKO BATEAN AUZI BAT SORTU DA GARRAIO BATEN KONTRATUA DELA ETA, ETA GARRAIOLARIAK ERREKLAMAZIOA EGITEN DU ARBITRAJE-BATZORDE ESKUDUNAREN AURREAN. IKUSTALDIAREN EGUNEAN, ALDERDI ERREKLAMAZIOGILEA EZ DA AGERTU, BAINA ARBITRAJE-BATZORDEAK LAUDOA EMATEN DU. ZUZENA DA BATZORDE HORREN JARDUNA? ZERGATIK?

- a) Ez; izan ere, laudoa batzordearen bilkuran eman behar da, alderdi biei entzun ondoren.
- b) Bai; izan ere, alderdi erreklamaziogilea ez agertzeak ez du eragozten laudoa ematea.
- c) Ez; izan ere, alderdi erreklamaziogilea ez agertzeak alderdi horrek erreklamazioan atzera egitea dakar.

2. GALDERA.-

GARRAIOA GALDAKAON ITUNDU BADA ETA, BEHIN MERKANTZIA MADRILEN EMANDA, GARRAIOA EZ BADIOTE ORDAINDU, SALGAIEN GARRAIORAKO ZEIN ARBITRAJE-BATZORDEREN AURREAN ESKATU BEHAR DITU MERKANTZIAREN GORDAILUA ETA SALMENTA?

- a) Bizkaiko arbitraje-batzordearen aurrean.
- b) Bietako edozeinen aurrean, berdin dio zeinen aurrean.
- c) Bizkaiko arbitraje-batzordearen aurrean.

3. GALDERA.-

MERKANTZIAREN GARRAIOAREN PREZIOA 1.500 EURO BADA ETA, BEHIN ARBITRAJE-BATZORDE ESKUDUNAK SALMENTA EGIN ONDOREN ETA GASTUAK DESKONTATU ONDOREN, 1.300 EURO LORTU BADIRA, NORK ORDAINDU BEHAR DU ALDEA?

- a) Zamaketariak.
- b) Hartzaileak.
- c) Kontsignatarioak

4. GALDERA.-

SESTAOREN ETA ALACANTEN ARTEKO ERREPIDE BIDEZKO SALGAIEN GARRAIO PUBLIKO BATEAN (SESTAON EGITEN DA KONTRATUA), MERKANTZIA GALDU DELA SALATU DA. ENPRESA GARRAIOLARIAK ARDURA BERE GAIN HARTU EZ DUENEZ, ZAMAKETARIAK DAGOKION ERREKLAMAZIOA AURKEZTU DU KANTABRIAKO ARBITRAJE-BATZORDEAREN AURREAN (BIZI DEN PROBINTZIAN); ERREKLAMAZIOAN, 6.300 EURO ESKATU DITU, ZENBATEKO HORRETAN BALORATZEN BAITU MERKANTZIA. GARRAIOEN ARLOKO KANTABRIAKO ARBITRAJE-BATZORDEA ESKUDUNA DA ARAZO HORI EBAZTEKO?

- a) Ez da eskuduna.
- b) Bai, eskuduna da.
- c) Ez, Bizkaikoa eta Alacantekoa soilik dira eskudunak.

5. GALDERA.-

ARBITRAJE-BATZORDE ESKUDUNAK ENPRESA GARRAIOLARI BATI 2.700 EUROKO ZIGORRA JARRI DIO KALTEAK ORDAINTZEKO, MURTZIAREN ETA VITORIA-GASTEIZEN ARTEKO GARRAIO BATEAN MERKANTZIA BAT GALTZEAGATIK. LAUDOA EMAN DENETIK 20 EGUN IGARO ONDOREN, KONTSIGNATARIOAK ORAINDIK ERE EZ DU KOBRATU ETA GARRAIOLARIAK EZ DIO ORDAINDU NAHI. NOLA JOKATU BEHAR DU KONTSIGNATARIOAK?

- a) Laudoa eman duen arbitraje-batzordearen aurrean erreklamatu behar du.
- b) Laudoa eman duen arbitraje-batzordeari betearazpena eskatu behar dio.
- c) Nahitaezko betearazpena eskatu behar du laudoa eman zuen arbitraje-batzordearen probintziako epaile eskudunaren aurrean.

2. KASUA

6. GALDERA.-

PERTSONA FISIKO BAT ERREPIDE BIDEZKO SALGAIEN GARRAIO PUBLIKOAN ARITZEN DA, 3000 KILOGRAMOKO BMG-A (BAIMENDUTAKO GEHIENEOKO MASA) DUEN IBILGAILU BATEKIN, ETA DAGOKION GARRAIO-BAIMENA DAUKA. ERRETIRATU EGIN DA. ORDURA ARTE, PERTSONA HORREK ZEUKAN GAIKUNTZA PROFESIONALA. SEME-ALABETAKO BATEK BAIMENA JASO DU JARAUNSPENEAN, BAINA EZ DAUKA GAIKUNTZA PROFESIONALA. ZEIN EPE DU GAIKUNTZA DUEN PERTSONA BAT JARTZEKO?

- a) 3 hilabete.
- b) Gehienez ere urte 1, beste 6 hilabetez luzatu daitekeena.
- c) Transmisioa egiten den unetik kontratatatu behar du gaikuntza duen pertsona bat.

7. GALDERA.-

SALGAIEN GARRAIO PUBLIKOA EGITEKO BAIMEN BATEN TITULARRA DEN PERTSONA FISIKO BAT, GAIKUNTZA PROFESIONALA UZTEN ZION PERTSONA BAT KONTRATATUTA ZEUKANA, HIL EGITEN DA. HAREN SEME-ALABETAKO BATEK JARDUN DEZAKE GARRAIOLARI, EZ BADAUKA GAIKUNTZA PROFESIONALA?

- a) Bai, gehieneko urte 1eko epe batean. Epe hori 6 hilabetez luzatu ahal izango da.
- b) Bai, gehieneko 3 hilabeteke epe batean.
- c) Ez, gaikuntza profesionala duen eta enpresaren zuzendaritza efektiboa egiten duen pertsona bat kontratatu behar du.

8. GALDERA.-

HILDAKO GARRAIOLARIAREN NAHITAEZKO JARAUNSLEEK ERABAKITZEN BADUTE GARRAIORAKO GAITZEN DITUZTEN TITULUETAN (GARRAIO TXARTELAK) SUBROGATZEA, EGIN DEZAKETE JARAUNSLE ERKIDEGO BATEN BIDEZ?

- a) Bai, gehieneko 2 urteko epean, edo epe laburragoan, jaraunspeneko ondasunak lehenago adjudikatzen badira.
- b) Ez, tituluetan subrogatzeko itxaron beharko dute jaraunspeneko ondasunak esleitu arte, bai pertsona fisiko gisa, bai pertsona juridiko gisa.
- c) Ez. Merkataritza sozietate bat edo garraiolarien kooperatiba bat sortu beharko dute, eta, horretarako, 2 urte izango dituzte gehienez.

9. GALDERA.-

ZEIN EPE DUTE JARAUNSLEEK ADMINISTRAZIOARI JAKINARAZTEKO GAIKUNTZA DUEN PERTSONA HIL DELA?

- a) hilabete 1.
- b) 3 hilabete.
- c) Urte 1, eta epe hori 6 hilabetez luza daiteke.

10. GALDERA.-

ERREPIDE BIDEZKO SALGAIEN GARRAIO PUBLIKOAN DIHARDUEN PERTSONA FISIKO BATI EBAZPEN IRMOZ ZEHAPENA EZARRI DIOTE BI ALDIZ SEI HILABETEKO EPEAN, DAGOKION GARRAIO-BAIMENIK GABE GARRAIO PUBLIKOA EGITEAGATIK. ULERTU DAITEKE PERTSONA HORREK OHORAGARRITASUNAREN BALDINTZA GALDU DUELA? HALA ULERTZEN BADA, ZENBAT DENBORAZ?

- a) Ez, ohoragarritasunaren baldintza galtzen da urte 1ean 3 zehapen oso larri edo gehiago egiten badira.
- b) Bai, ohoragarritasun baldintza galdu du, 3 urtez.
- c) Bai, ohoragarritasun baldintza galdu du, 5 urtez.

3. KASUA

11. GALDERA.-

ERREPIDEKO IKUSKAPEN BATEAN AUTOBUS BAT GELDIARAZI DA, ETA DERRIGORREZKO DOKUMENTAZIOA ESKATU ZAIO GIDARIARI. GIDARIAK GARRAIO TXARTELA ERAKUTSI DU; BIDAIARIEN GARRAIO PUBLIKO DISKREZIONALERAKO BAIMEN BATEN 3 ZENBAKIKO KOPIA DA.

BIDEKO LIBURUAN DAUDEN OHARRAK EGIAZTATUTA, EGIAZTATU DA ASTELEHENETIK OSTIRALERA JOANEKO 4 ZERBITZU ETA ITZULIKO 4 ZERBITZU EGITEN DITUELA GETXOKO UDALETIK LOIUN DAGOEN LAURO IKASTOLARA; GARRAIO TXARTELAZ GAIN BESTE BAIMENIK BEHAR DU ZERBITZU HORIEK EGITEKO?

- a) Bai, erabilera bereziko bidaiarien garraio erregularra egiteko baimen bat.
- b) Bai, erabilera orokorreko bidaiarien garraio erregularra egiteko baimen bat.
- c) Ez, zerbitzu diskrezional bat baita.

12. GALDERA.-

EGIAZTATU DA AUTOBUSEKO BIDAIARIAK 35 ESKOLAUME ETA IKASTOLAKO JANTOKIKO 4 LANGILE DIRELA. HORREK AL DAKAR GARRAIOEI BURUZKO ARAUDIA HAUSTEA?

- a) Ez, bidaiari guztiak ikastetxe berekoak direlako.
- b) Bai, arau-hauste oso larria.
- b) Bai, arau-hauste larria.

13. GALDERA.-

JANTOKIKO LANGILEEK BEREN TXARTELA DARAMATE; TXARTEL HORREK EGIAZTATZEN DU 0,90 € ORDAINDU DUTELA JOANEKO BIGAIAGATIK. HAUTSI AL DA GARRAIOEN ARLOKO ARAURIK?

- a) Bai, zerbitzu honetan ezin baita kobrantza indibidualik egin.
- b) Bai, txartela joanekoa eta itzulikoa izan behar delako.
- c) Txartelak bidariantzako derrigorrezko aseguruua badu (S.O.V.I.), ez da arau-hausterik egongo.

14. GALDERA.-

IKUSI DA AUTOBUSAK ABIADURA MUGATZAILEA DESKONEKTATZEKO GAILU BAT DUELA INSTALATURIK. LURREKO GARRAIOEN ANTOLAMENDUAR BURUZKO LEGEAREN ARABERA, NORI DAGOKIO ARAU-HAUSTE HORREN ERANTZUKIZUNA?

- a) Garraiolariari eta, hala denean, tailer instalatzaileari.
- b) Gidariari, garraiolariari eta, hala denean, tailer instalatzaileari.
- c) Gidariari eta garraiolariari.

4. KASUA

15. GALDERA.-

ERREPIDEKO IKUSKAPEN KONTROL BATEAN HAU IKUSI DA: SALGAIEN GARRAIOA EGITEN ARI DEN KAMIOI BATEK (1234-ABC) OSO BEHERATUAK DITUELA ATZEKO GURPILAK. GARRAIO IKUSKATZAILEEK ERABAKI DUTE KONTROLETIK 35 KM-RA (KAMIOIAK DARAMAN NORANZKOAN) DAGOEN BASKULA BATERA ERAMATEA PISATZEKO. ZUZENA DA JARDUTEKO MODU HORI?

- a) Bai
- b) Ez.
- c) Soilik garraio publiko bat bada

16. GALDERA.-

PISATZEKO ERABILITAKO BASKULA HOMOLOGATUTA DAGO, ETA EGIAZTAPENeko ETA INDARREKO ALDIZKAKO IKUSKAPENETAKO ZIURTAGIRIA DAUKA. IBILGAILUAK BIGARREN GASOLIO TANKE BAT DU, 85 LITROKO EDUKIERA DUENA. GIDARIAK EGIAZTATZEN DU BIGARREN TANKE HORI BETE BERRI DUELA. PISATZEAN, BASKULAN JARRITAKO IBILGAILUAK 27.600 KG-KO PISUA EMATEN DU. IBILGAILUAREN BMG-A 26.000 KILOKOA DA ETA OSORIK BETETAKO BIGARREN TANKEAK 85 KILOKO PISUA BADAUKA, ZEIN DA GEHIEGIZKO PISUA, EHUNekoETAN?

- a) % 6,48.
- b) % 6,15.
- c) % 5,82.

17. GALDERA.-

ZEIN ARAU-HAUSTE MOTA DA? ARAU-HAUSTE HORREK IBILGAILUA IBILGETZEA EKARRIKO LUKE?

- a) Arau-hauste larria, eta ibilgailua ibilgetu behar da.
- b) Arau-hauste arina, eta ibilgailua ez da ibilgetu behar.
- c) Arau-hauste oso larria, eta ibilgailua ibilgetu behar da.

18. GALDERA.-

ETXE-ALDAKETAKO GARRAIOA BADA, ZEIN IZANGO DA/DIRA GEHIEGIZKO PISUAREN ARAU-HAUSTEAREN ERATZULEA/K?

- a) Garraiolaria, zamaketaria, espedidorea eta bitartekaria
- b) Garraiolaria.
- c) Garraiolaria eta zamaketaria.

19. GALDERA.-

IKUSKAPEN AKTA EGITEKO DATUAK HARTZEKO ORDUAN, IBILGAILUAREN ZIRKULAZIOKO BAIMENA ETA GARRAIO TXARTELA ESKATU ZAIZKIO. IBILGAILUAN DARAMAN GARRAIO TXARTELA IRAUNGITA DAGOELA IKUSI DA. HORI GARRAIOARI BURUZKO ARAUDIAREN ARLOKO ARAU-HAUSTEA DA?

- a) Bai.
- b) Ez da arau-haustea txartelaren balio-aldia berritzeko epearen barruan badago.
- c) Ez da arau-haustea txartelaren bisatua egin badu.

20. GALDERA.-

TAKOGRAFOAREN DISKO-DIAGRAMA 12:30EAN ESKATU ZAIO, ETA HAU IKUSI DA: 8:00ETAN HASI DA GIDATZEN; TAKOGRAFOA 11:00ETATIK 11:15ERA IREKITA IZAN DU; GERO, 45 MINUTUKO ATSEDENALDIA HARTU DU, ETA 12:00ETAN JARRAITU DU GIDATZEN. GARRAIOEI BURUZKO ARAUDIAREN AURKAKO ARAU-HAUSTERIK EGIN DU?

- a) Bai, arau-hauste arina da.
- b) b) Bai, arau-hauste oso larria
- c) Ez.

5. KASUA

7.000 KG-KO BMG-A DUEN IBILGAILU BATEK IBILGAILUAREN TITULARRARENAK DIREN ZALDIK GARRAIATU DITU. GARRAIOA GUZTIZ PARTIKULARRA DA; JABEAK ZALDIK BERE JABETZAKO FINKARA ERAMAN DITU. IBILGAILUAK ABIADURA MUGATZEKO GAILUA ERABILTZERA BEHARTUTA DAGO.

21. GALDERA.-

561/2006 ERREGELAMENDUAN EZARRITAKOAREN ARABERA, BEHARREZKOA DA TAKOGRAFOA ERABILTZEA GIDATZE-ALDIK ETA ATSEDENALDIK KONTROLATZEKO?

- a) Takografoa erabili behar da, 3.500 kg-tik gorako BGM-ko ibilgailua baita.
- b) Ez da beharrezkoa takografoa erabiltzea, garraio hori salbuesita baitago.
- c) Takografoa erabili behar da, abiadura mugatzeko gailua erabiltzera behartuta dagoen ibilgailua baita.

6. KASUA

DISKO-DIAGRAMA (1 ZENBAKIKO DOKUMENTUA) AZTERTU ONDOREN IKUSI DUGU, GIDARIAK IDATZITAKOAREN ARABERA, HASIERAKO KILOMETROAK 158.937 KM DIRELA ETA AMAIERAKOAK, 159.620 KM. DISKO-DIAGRAMA ARRETA HANDIZ IRAKURRI ONDOREN, ZEIN DA ERANTZUN ZUZENA, GIDARIAK IDATZI DUENAREN ETA IRAKURKETAREN ARTEKO ALDEARI DAGOKIONEZ.

22. GALDERA.-

- a) Aldea 39 kilometrotik beherakoa da.
- b) Aldea 39 kilometrotik gorakoa da.
- c) Ez dago alderik.

7. KASUA

AZTERTU 2 ETA 3 ZENBAKIA DUTEN DOKUMENTUETAKO DISKO-DIAGRAMA ETA ADIERAZI EA 2010EKO MAIATZAREN 27TIK 28RAKO JARDUNALDIAN ARAU-HAUSTERIK DAGOEN, EGUNEKO ATSEDEN MURRIZTUA GUTXITZEAGATIK:

23. GALDERA.-

- a) Arau-hauste oso larria dago.
- b) Ez dago arau-hausterik.
- c) Arau-hauste arina dago.

24. GALDERA.-

ZEIN DA EGUNEKO GIDATZE-ALDIA MAIATZAREN 27TIK 28RAKO JARDUNALDIAN?

- a) Bederatzi ordutik beherakoa.
- b) Hamar ordutik gorakoa.
- c) Bederatzi eta hamar ordu bitartekoa

8. KASUA

“A” GIDARIA BILBON BIZI DA, ETA “XXX” GARRAIO ENPRESA BATENTZAT EGITEN DU LAN (BILBON DU EGOITZA). ASTEKO ATSEDENALDIA HARTU ONDOREN, ENPRESAK ESKATU DIO MADRILERA JOATEKO “ZZZ” KAMIOIA (38.000 KG-KO BGM) HARTZEKO. IZAN ERE, KAMIOI HORREN GIDARIAK EZIN DU LANA EGIN, GAIXORIK DAGOELAKO.

“A” GIDARIA BERE IBILGAILU PARTIKULARREAN (EZ DAGO SARTUTA 561/2006 ERREGELAMENDUAREN EZARPEN EREMUAN) JOAN DA BILBOTIK MADRILERA.

ONDOREN ZEHAZTUTA DAUDE “A” GIDARIAK EGINDAKO JARDUERAK, 2010EKO 20TIK 21ERAKO JARDUNALDIAN:

- **BILBO-MADRIL BIDAIA, BERE AUTO PARTIKULARREAN; BILBOTIK 11:00ETAN IRTEN ETA MADRILERA 15:00ETARA HELDU DA.**
- **16:00ETAN, “ZZZ” KAMIOIA HARTU DU, ETA JARDUERA HAUEK EGIN DITU:**
 1. **16:00ETATIK 18:00ETARA BITARTEAN GIDATU DU.**
 2. **18:00ETATIK 18:30ERA BITARTEAN, ATSEDEN HARTU DU.**
 3. **18:30ETIK 20:30ERA BITARTEAN GIDATU DU.**
 4. **20:30ETIK 20:45ERA BITARTEAN, ATSEDEN HARTU DU.**
 5. **20:45ETIK 21:15ERA BITARTEAN GIDATU DU.**
 6. **21:15ETIK 02:00ETARA BITARTEAN, BESTE LAN BATZUK EGIN DITU.**
 7. **02:00ETATIK 06:00ETARA BITARTEAN GIDATU DU.**
 8. **06:00ETATIK 11:00ETARA BITARTEAN, ATSEDEN HARTU DU.**

25. GALDERA.-

NOLA ERREGISTRATU BEHAR DU “A” GIDARIAK ERREGISTRO-ORRIAN BILBO-MADRIL BIDAIA EGITEKO EMANDAKO LAU ORDUKO DENBORALDIA?

- a) **“Beste lan batzuk” gisa erregistratu behar da.**
- b) **“Gidatze” gisa erregistratu behar da.**
- c) **Ez da erregistratu behar, erabilitako autoa ez baita sartzen 561/2006 Erregelamenduaren ezarpen eremuan.**

26. GALDERA.-

“A” GIDARIAK BETE AL DU 561/2006 ERREGELAMENDUKO 7. ARTIKULUAN EZARRITAKOA, ETENIK GABEKO GIDATZE-ALDIARI DAGOKIONEZ?

- a) **Bai, 4 ordu eta 30eko gidatze-aldi baten ondoren, gutxienez 45 minutuko etenaldi bat egin baitu.**
- b) **Ez.**
- c) **Bai, ez baitago 4 ordu eta 30etik gorako gidatze-aldirik.**

27. GALDERA.-

DEMAGUN "A" GIDARIAK URRIAREN 20TIK 21ERAKO JARDUNALDIAN EGUNEKO ATSEDEN MURRIZTUA EGIN BEHAR DUELA; ARAU-HAUSTERIK LEGOKE ATSEDEN FALTAGATIK?

- a) Arau-hauste larria legoke.
- b) Ez legoke arau-hausterik.
- c) Arau-hauste oso larria legoke.

9. KASUA

"FRUTAS GÓMEZ" ENPRESAK 3.500 KG-KO BMG-A (BAIMENDUTAKO GEHIENEO MASA) DUEN IBILGAILU BAT BEHAR DU BERE SALGAIK BANATZEKO; ENPRESA ERRENTATZAILE BATI ALOKATU DIO IBILGAILUA HAMAR EGUNERAKO, ERABILI OHI DUEN IBILGAILUA MATXURATUTA DAGOELAKO.

28. GALDERA.-

BEHAR AL DU "FRUTAS GÓMEZ" ENPRESAK" GARRAIO BAIMEN BAT ALOKAIRUAN HARTU DUEN IBILGAILUAN BERE SALGAIK ERAMATEKO?

- a) Ez du garraio baimenik behar 3.500 Kg-ko BMGa gainditzen duen ibilgailua ez delako eta garraio pribatu osagarri bat delako.
- b) Garraio pribatu osagarrirako baimen bat behar du.
- c) Garraio publikorako baimen bat behar du.

10. KASUA

38.000 KG-KO BAIMENDUTAKO GEHIENEO MASA DUEN IBILGAILU BATI ERREPIDEKO IKUSKAPEN BAT EGIN ZAIO. IBILGAILUA GARRAIO PUBLIKOAN DIHARDUEN ENPRESA BATENA DA.

IKUSKAPENA EGIN DEN EGUNEAN EDUKIONTZIA HUTSIK DARAMA. GARRAIO PUBLIKORAKO BAIMENA ESKATU ZAIO, ETA EGIAZTATU DA EZ DUELA.

GARRAIO PUBLIKORAKO BAIMENA EZ IZATEAGATIK, IKUSKAPENEO AGINTARITZAK IREKI BEHAR AL DIO SALAKETA BAT ETA IBILGAILUA IBILGETU?

29. GALDERA.-

- a) Garraio publikorako baimenik ez duen ibilgailu astuna denez, salaketa ireki behar zaio, eta ibilgailua ibilgetu.
- b) Ez, ikuskapena egin den unean edukiontzia hutsik dagoelako.
- c) Bai, salaketa jarri behar da garraio publikorako baimenik ez duelako, baina ez da ibilgailua ibilgetu behar.

11. KASUA

4 ZENBAKIKO DOKUMENTU GISA ERANTSITAKO TAKOGRAFOAREN TIRA INPRIMATUAK AZTERTU ONDOREN, ADIERAZI:

30. GALDERA.-

ZEIN DA 2010EKO URTARRILAREN 29AN EGINDAKOAREN AURRETIK EGIN DEN AZKEN ERREPIDEKO IKUSKAPENAREN DATA?

- a) 2009ko abenduaren 30a
- b) 2010eko urtarrilaren 21a.
- c) 2009ko abuztuaren 12a.

31. GALDERA.-

ZEIN DA KONTROLATZAILEAREN TXARTELAREN IRAUNGIPEN DATA?

- a) 2011ko abenduaren 18a
- b) 2012ko urtarrilaren 9a.
- c) 2009ko abuztuaren 12a.

32. GALDERA.-

2010EKO URTARRILAREN 21EAN, 05:25EAN, EGUNEKO ATSEDENA EGIN ONDOREN, GIDARI BAT HASI DA GIDATZEN; ADIERAZI EA 21ETIK 22RAKO JARDUNALDIAN ARAU-HAUSTERIK DAGOEN EGUNEKO ATSEDEN MURRIZTUAREN ESKASIAGATIK:

- a) Ez dago arau-hausterik.
- b) Arau-hauste larria dago.
- c) Arau-hauste arina dago.

12. KASUA

ERREPIDEAN, IBILGAILU ARTIKULATU BATEN KONTROLA EGIN DA. HAREN IBILGAILUEN AZTERKETA TEKNIKOAN (IAT) DATU HAUEK DAUDE: "BGM/BGMT: 40.000/55.000 KILOGRAMO".

ZIRKULAZIORAKO BAIMEN BEREZIA DAUKA, 49.000 KILOGRAMOKO BGM-KO PIEZA BANAEZIN BAT GARRAIATZEKO.

IBILGAILUA BASKULA OFIZIAL BATERA ERAMAN DA, ETA 54.000 KILOGRAMOKO PISUA DAUKALA IKUSI DA.

33. GALDERA.-

LURREKO GARRAIOEN ANTOLAMENDUARI BURUZKO LEGEAREN ARABERA, ZEIN ARAU-HAUSTE EGIN DA?

- a) Arau-hauste larri bat.
- b) Ez dago arau-hausterik, lurreko garraioen antolamenduari buruzko Legearen ondorioetarako.
- c) Arau-hauste oso larria dago.

13. KASUA

2008KO URTARRILAREN 4AN, JOSÉ PÉREZ GONZÁLEZ GIDARIARI AURREKO 28 EGUNETAN EGINDAKO JARDUERAK ESKATU ZAIZKIO.

INFORMAZIO HORI AZTERTUTA, EGIAZTATU DA 2007KO ABENDUAREN 24TIK 30ERA ARTEKO ASTEAN, LEHEN HIRU JARDUNALDIETAN, HIRU ALDIZ HARTU DUELA EGUNEKO ATSEDEN MURRIZTUA.

LAUGARREN JARDUNALDIAN (28TIK 29RA BITARTEKOA), 5 ZENBAKIKO DOKUMENTUAN ADIERAZTEN DIREN JARDUERAK EGIN DITU.

34. GALDERA.-

ADIERAZI EA ARAU-HAUSTERIK DAGOEN DERRIGORREZKO EGUNEKO ATSEDENALDIA GUTXITZEAGATIK ETA, HALA BADA, GUTXITZE HORREN PORTZENTAJEA ERE BAI.

- a) Ez dago arau-hausterik.
- b) Bai, % 20 - % 50 arteko gutxitzea.
- c) Bai, % 70etik gorako gutxitzea.

35. GALDERA.-

2007KO ABENDUAREN 24AN HASITAKO ASTE HORRETAN, GIDARIA HAMAR ORDUZ ARITU DA GIDATZEN BI JARDUNALDITAN, ABENDUAREN 28KO JARDUNALDIAREN AURRETIK. ADIERAZI NOLAKO ARAU-HAUSTEA GERTATU DEN ABENDUAREN 28TIK 29RAKO JARDUNALDI HORRETAN, EGUNEKO GIDATZE-ALDIA GEHIEGIZKOA IZATEAGATIK. IKUSI 5 ZENBAKIKO DOKUMENTUA.

- a) Arau-hauste arina
- b) Arau-hauste larria.
- c) Arau-hauste oso larria.

14. KASUA

AZTERTU JIMÉNEZ GIDARIAK 2007KO ABENDUAREN 19TIK 20RA BITARTEAN EGINDAKO GIDATZE-ALDIA (6 ZENBAKIKO DOKUMENTUA).

36. GALDERA.-

EGUNEKO HAMAR ORDUKO GIDATZE-ALDIA KONTUAN HARTUTA, ADIERAZI ZEIN DEN ERANTZUN ZUZENA:

- a) Arau-hauste arina dago.
- b) Ez dago arau-hausterik.
- c) Arau-hauste larria dago.

15. KASUA

GARRAIOEN IKUSKAPENEO LAGUNTAILEEK ERREPIDEKO IKUSKAPENA EGIN DIOTE IBILGAILU BATI (1234-CYP), 2007KO ABENDUAREN 21EAN. IKUSKAPENA 23:20EAN EGIN DA, ETA TAKOGRAFOAN SARTUA DAGOEN DISKOA ESKATU ZAIO GIDARIARI.

37. GALDERA.-

AZTERTU 7 ZENBAKIKO DOKUMENTUA, ETA ADIERAZI EA ARAU-HAUSTERIK DAGOEN EGUNEO ATSEDEN NORMALA GUTXITZEAGATIK:

- a) Ez dago arau-hausterik.
- b) Arau-hauste larria dago.
- c) Arau-hauste arina dago.

16. KASUA

ERREPIDEKO IKUSKAPENA EGIN ZAIO GARRAIO PUBLIKORAKO BAIMENA DUEN IBILGAILU BATI.

IBILGAILU HOZTAILE BAT DA, "B" MOTAKOA, -10 GRADU ZENTIGRADURAINOKO (EDO CELSIUS) TENPERATURAN MERKANTZIA ERAMAN DEZAKEENA.

PRODUKTU ULTRAIZOTUAK DIRA DARAMATZAN SALGAIK, ETA BEHARREZKOA DA PRODUKTU HORIEK -18 GRADU ZENTIGRADUKO (EDO CELSIUS) TENPERATURAN GARRAIATZEA.

GARRAIO DOKUMENTUA DARAMA; DOKUMENTU HORRETAN, MERKANTZIAREN GARRAIOLARIA, ESPEDIDOREA ETA HARTZAILEA ADIERAZTEN DIRA.

38. GALDERA.-

NOLAKO ARAU-HAUSTE MOTA DA SALGAIK BEHARREZKOA DEN TENPERATURARA IRISTEN EZ DEN IBILGAILU BATEAN GARRAIATZEA?

- a) Arina
- b) Oso larria.
- c) Larria

39. GALDERA.-

NORI DAGOKIO ARAU-HAUSTE HORREN ERANTZUKIZUNA?

- a) Garraio baimenaren titularrari eta espedidorari
- b) Espedidoreari soilik.
- c) Garraio baimenaren titularrari soilik.

17. KASUA

ERREPIDEAN IBILGAILU BATEN IKUSKAPENA EGIN DENEAN, IKUSI DA GIDARI BI DAUDELA. DISKO-DIAGRAMAK AZTERTU ONDOREN IKUSI DA BIGARREN GIDARIAREN ESKU-HARTZEA LEHENENGO GIDARIA GIDATZEN HASI DEN UNETIK BI ORDU IGARO ONDOREN GERTATU DELA.

40. GALDERA.-

GIDARI BAKOITZAREN EGUNEKO ATSEDENA KONTABILIZATZEKO, ZEIN DENBORA-TARTE EGIAZTATU BEHAR DA?

- a) **Gidariaren aurreko eguneko edo asteko atsedena amaitu eta hurrengo 9 orduak.**
- b) **Gidariaren aurreko eguneko edo asteko atsedena amaitu eta hurrengo 30 orduak.**
- c) **Gidariaren aurreko eguneko edo asteko atsedena amaitu eta hurrengo 24 orduak.**

ERRESERBAKO GALDERAK.-

18. KASUA

BI GIDARIEN DISKO-DIAGRAMAK AZTERTU ONDOREN, ERANTZUN GALDERA HAUEI (8, 9, 10 ETA 11 ZENBAKINETAKO DOKUMENTUAK):

41. GALDERA.-

TALDEKO GIDATZE HORRETAN, BA AL DAGO ARAU-HAUSTERIK "A" GIDARIAREN EGUNEKO ATSEDENALDIA GUTXITZEAGATIK (8 ETA 9 ZENBAKINETAKO DOKUMENTUAK)?

- a) Ez dago arau-hausterik.
- b) Arau-hauste arina dago.
- c) Arau-hauste larria dago.

42. GALDERA.-

TALDEKO GIDATZE HORRETAN, BA AL DAGO ARAU-HAUSTERIK "B" GIDARIAREN EGUNEKO ATSEDENALDIA GUTXITZEAGATIK (10 ETA 11 ZENBAKIKO DOKUMENTUAK)?

- a) Arau-hauste arina dago.
- b) Arau-hauste larria dago.
- c) Arau-hauste oso larria dago.

43. GALDERA.-

2009KO APIRILAREN 23TIK 24RAKO JARDUNALDIAN, NOIZ HASTEN DA "A" GIDARIAREN GIDATZE-JARDUERA, "1-A" DISKOAN? (8 ZENBAKIKO DOKUMENTUA)

- a) 11:52an.
- b) 17:55ean.
- c) 22:05ean.

44. GALDERA.-

2009KO APIRILAREN 23TIK 24RAKO JARDUNALDIAN, NOIZ HASTEN DA "B" GIDARIAREN GIDATZE-JARDUERA, "1-B" DISKOAN? (10 ZENBAKIKO DOKUMENTUA)

- a) 15:55ean.
- b) 02:50ean.
- c) 08:30ean.

45. GALDERA.-

"A" GIDARIAREN ("1-A" DISKOA, 8 ZENBAKIKO DOKUMENTUA) DISKO-DIAGRAMAN, GEHIENEO ATSEDENALDI JARRAITUA DENBORA TARTE HONETAN DAGO:

- a) 3 eta 6 ordu bitartean.
- b) 6 eta 8 ordu bitartean.
- c) 8 eta 11 ordu bitartean.

46. GALDERA.-

"B" GIDARIAREN ("1-B" DISKOA, 10 ZENBAKIKO DOKUMENTUA) DISKO-DIAGRAMAN, GEHIENKO ATSEDENALDI JARRAITUA DENBORA TARTE HONETAN DAGO:

- a) 1 eta 5 ordu bitartean.
- b) 5 eta 9 ordu bitartean.
- c) 9 eta 10 ordu bitartean